

IBILALDIA




Dehesa etxea
Ingurugiro Gaietarako Ikastegia

Olarizu zelaia abiapuntua izango da. Olarizuren izen jatorria, historialarien arabera, Olarizuko parkea dagoen tokian herrixka bat zegoen: 1025 urtean dokumentaturik dago Hollarruizi zuela izena; eta geroago, Hollarruizu izenarekin ere aurkitu dira dokumentuak. Eta azkenik XIX.mendean hartu omen zuen Olharizu izena. San Millango Errejan agertzen da: “...Gardellihi tres regas, Gaztelli et Meiana tres regas. Mendiolha, **Hollarruizu**, et

Adurtzaha tres regas. Gastehiz tres regas. Arriaga una rega.”

Olarizu parkeko Dehesa etxealdearen atzean bertan, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak egoitza, ibilbidearen hasierari ekingo dio. Zuzen-zuzenean igotzen den bidea jarraituko dugu mendigainaraino.

Mendi hau Kutzemendi edo Santakurutzgana bezala ere ezaguna da, baina izen hau lehen aipatu dugun Olarizu herriari lotuta dago eta ez mendian dagoen gurutzeari, 1952. Urtean. Bere ondoan ere telebista-telefono antena dago. Mendian zehar hegoalderuntz Gaztelu/Castillo herrirra helduko da. Lehenengo hormigoizko kaletik abiatu eta ezkeraldera joan beharko maldan gora doan pistaraino. Korta baten ondoko ataka zeharkatu eta antena baten aldameneko bigarren atakatik gertu izan ondoren kontrako noranzko bide zabaletik segituko da. Denbora gutxitan, aurrean agertutako bidexkatik 848 metroko Lendizgana gailurrean izango da. Ibilaldi honen altuerarik handiena izango da. Igoeraren kontrako noranzko, GR-282 artzaintza naturbidearen bila jeitsi, alanbrezko hesiaren parean Pieza Vitoria baserrietara heldu arte. Hemen anoa-postua kokatuko da.



Ezkerreko bidea hartuz gero, lursailaren parera, agertutako lehenengo eskumako bideari jarraituko da. Metro batzuk pasa ondoren eskumako pista aldapatsuak Betoñu Haitza Mendateara Koladarekiko bidegurutzera eramango gaitu. Hemen ezkerretik ibiliko da eta aurkitutako lehenengo GR-25 Lautadako Bira Mendi Magaleanen ikurrei jarraitu. Beranduago, Basotxo mendiko aldapak zeharkatu ondoren, Mendiola eta Meaco Baserriako galtzada asfaltatzean zehar ibiliko da.



Azkenik, Mendiola kale nagusia zeharkatu Kutzemendi edo Santakurutzganako bideraino. Metro batzuk ibili, gerorako, alde batera uzteko eta iparralderuntz doan bideak Olarizuko Dehesa etxera eramango du. Olarizu-Olarizu Ibilbidearen amaiera.